




Esportazioak %29,9 hazi ziren urtarrilean


EAEko ekonomiaren esportazioak
Urte bakoitzeko urtarrila. Milioi



Atzerriara bidalitako ondasunen esportazioak %29,9 hazi ziren urtarrilean, aurreko urtearekin alderatuta. Guztira, 2.241 milioi euro balio zuten produktuak saldu ziren, urtarril bateko kopururik handiena baita. Bai energiaren esportazioak bai gainerakoak hazkunde oso handiak izan zituzten hilabete ho-

Etxebizitzaren salmenta %18,5 handitu zen urtarrilean

EAEko etxebizitzaren salmenta
Urte bakoitzeko urtarrila




Aurtengo urtarrilean 2.026 etxebizitza saldu ziren Euskadin, hau da, aurreko urtean baino %18,5 gehiago. Kopuru hori azken urteetako balio maximoetara hurbiltzen da: 2019ko 2.181 etxebizitzetara eta 2008ko 2.178etara. Azken urte horretan higiezinaren burbuila lehertu zen.



Turismoen matrikulazioa ez da suspertzen


Turismoen matrikulazioa EAEn
Urte bakoitzeko otsaila



Otsailean, turismoen matrikulazioa %7,5 igo zen EAEn aurreko urtearekin alderatuta. Igoera hori lortu zen arren, saldutako unitate guztiak (2.103) oso urrun daude aurreko urteetako kopuruetatik; horien artean nabarmentzen dira 2008koa eta, denboran hurbilago, 2018ko urtekoa.

Atzeritarren afiliazioa %9,7 areagotu zen otsailean

Atzeritarren afiliazioa
Balio absolutua



Otsailean, atzeritarren Gizarte Segurantzako afiliazioa %9,7 hazi zen urte arteko tasan, 74.611 afiliazioetara iritsi arte. Pertsona horiek etxeko lanean, ostalaritzan, merkataritzan eta eraikuntzan kontzentratzen dute beren lan jarduera, baina pixkanaka gero eta pisu handiagoa hartzen ari dira gainerako jardueretan ere.